

ZABORKERIAK ARI BIRA, DUGUN EGINA

Joseba Tobar-Arbulu

Ekonomian aro berri baten aurrean gaude. Ustiakuntza ez da soil-soilik industrian gertatzen. Gizarte osoa dago kapitalaren menpe, kapitalak jartzen dituen baldintzen menpe. Kapitalaren ustiakuntza eta klase-borroka ez dira desagertu, bertze baldintza desberdin batzuen bitartez azaldu baizik. Beraz, bizi gareneko gizartea analizatzeko eta bera aldatzeko kategoria berriak asmatu beharra daukagu. **Ustiakuntza** desberdinak aztertzeko kategoriak.

Ekonomia berrian subjektu sozial berria ageri da nonnahi, zeinak, gehien batez, komunikazioaren bidez bere kooperazio sozialaren produzitzailea baita. Horixe da ekonomiaren gaur egungo sektore estrategiko bakarra, alegia, **komunikazioa eta kooperazio sozialaren produkzioa**.

Kapitalerako den lan alienatzailearen kontra, lanindar sozial berria, langile sozialdua, erabat abstraktua da eta gizartean zehar hedatua. Bera da produkzio sozial berria, hau da, **kooperazio sozial berria** martxan jar dezakeena, alegia, bertze gizarte-mota baten sortzailea, askatasun-gunez beterikoa izan daitekeena, eta zentraldurik barik erabat deserdiraturik egon daitekeena.

Zaharrak berri?

Aspaldian "sozialismoan bakoitzari bere lanaren arabera emanen zitzaioala" aipatu zen. Marx-ek, bere aldetik, "komunismoan bakoitzari bere beharrizan edo premien arabera emanen zitzaioala" aldarrikatu zuen. Askotxok komunismorako bidean sozialismotik iragan beharko zela uste zuen. Hala ere, esperientziak, eta ez bertze ezerk, argi frogatu du aldarrikaturiko sozialismoa estatu-kapitalismo atzeratua bertzerik ez dela izan; hots, kapitalaren kudeatze-mota bat, nahiz eta hori egiteko eta lortzeko, langileriaren izena erabilia izan eta burokrata franko langilegoaren lepotik bizi izan. Sozialismoa (produktzio-baliabideak nazionaltzea, plangintza zentraldua, eta abar luzetxo bat), ekonomia eta boterearen gestio kapitalista berezia izan da.

Ohizko sozialismoak, beraz, ez dauka ezer errekuuperatzeko. "Lenin-i atxeki behar zaio", "1971ko izpiritura itzuli beharra dago", edo eta "Maoismoarekiko erabat fidela naiz" bezalako baieztapenak zaharkeria hutsak bertzerik ez direla aldarrikatu behar da argi eta garbi.

Marx-en ustez, alta, komunismoa demokrazia ekonomiko-politikoa zen. Horrexegatik, Marx-i jarraituz, ezagutzen dugun demokrazia formalaz ezezik, **demokrazia absolutuaz** ere mintzatu nahi genuke. Kontzeptu horren bitartez erran nahi duguna zera da, norberak, gizabanako, talde zein herri den aldetik, ezelako bertzerenganako bertzelaketzerik gabe,

esku zuzena hartu behar duela, hala politikan nola ekonomian bere premiak definitzen eta betetzen ahaleginduz.

Ekonomian aro berri baten aurrean gaude. Ohizko sektore estrategikoak pikutara bidali ditu kapitalismo-mota berriak. Eta kapitalismo horri aurre egin behar zaio, ez jadanik esistitzen ez den kapitalismo-motari. Ohizko lan produktiboa, industriari lotua zegoena, zeukan zentzua galduta dago gaur egun. Enpresa, fabrika eta lantegietan automatizazioak eta gizartearen informatizazioak lan-prozesuak aldatu egin dituzte oso. Industri-erregulazioa enpresa multinazional erraldoien menpe dago, eta mundu-merkatua finantz erreminta bitartez, monetaren bidez, kontrolatzen da, monetarismoa nagusi delarik nonnahi.

Baina ustiakuntza ez da soil-soilik industrian gertatzen. Gizarte osoa dago kapitalaren menpe, kapitalak jartzen dituen baldintzen menpe. Baldintza berri hauek ezagutu behar dira, Euskal Herriaren nazio-erakitzea, nazio-gintza berria, ongi zehazteko. Baldintza mingarriei aurre egiteko, txorakeria litzateke balio ez duten neurriak ezartzen ahalegintzea.

Zeintzu ote dira gaur egungo Euskal Herriko jendearen nahiak eta desioak? Ikus dezagun, kasu, ekonomian, zer-nolako ekonomi motaren aurrean gauden, hala mundu mailan nola "Europan". Analiza dezagun zeintzuk diren gure premiak eta zeintzuk izan daitezkeen gure kideak bertze Europa bat eraikitzean, non herri guztiek beren eskubideak bermaturik izanen dituzten, eta

beraiekin batera, bultza dezagun amankomuneko proiektua, zeren amankomuneko elkartasuna gero eta beharrezkoa baitzaigu. Kooperazio eta elkartasuna kapitalaren kontrako nolabaiteko **aurrebaldintza** da. Kapitalari, eta bere proiektuari, aurre egiteko, independente eta autonomo den proiektuari, aurre egiteko, independente eta autonomo den proiektu ireki bat behar dugu.

Ohizko lan alienatzaileari aitzi, nonnahi indar berria hasi da agertzen. Factum bat da maila mikrofisikoan eta nonnahi antagonismo desberdinak ageri direla. Oraingoz, ahalaz ere, ezin da subjektuaz mintzatu, zeren antagonismoko multzo horri ezin dakizkiokeen ezaugarri subjektiboak atxiki. (Hemen ez gara esoterismo merkeaz, hots, psikoanalisi, Lacan eta antzeko zaborkeriaz, ari.) Subjektu kolektiborak abia daitekeen prozesu baten aurrean gaude. Mugimendu eta bilakatze hori ez da determinista, erabat irekia baizik. Bertan ez dago ezelako teleologiarik, inolako dialektikarik, eraikitze-prozesua bertzerik ez da. Oraingoz askapen-espazioak irekitzen ari dira.

Lanindar sozial berria erabat abstraktua eta hedatua da gizartean zehar. Eraikitze-potentzia berri horrek produkzio soziala bereganatu beharko du, ekonomia bera politikan bertan barneratuz. Izan ere, automatizazioa, oraingoz kontrola makineriaren bidez suposatzen dueneko ekonomia politiko zaharrari loturik baldin badago, informatizazioak marko hori gainditu du eta hausturarako potentzialtasunak eskaintzen ditu. Informatizazioak

kooperazio sozialaren autonomiari leku laga diezaiokie. Eta kooperazio sozial horretatik subjektu kolektiboak bere burua antola dezake.

Agertuko al da jadanik ezagunak diren askapen-prozesu desberdinetatik demokrazia absolutuaren subjektu kolektiboa? Geroak erranen du zenbait arlotan ageri den hainbat antagonismotatik subjektu kolektibo hori gauzatuko den ala ez.

Krisia sakona da oso

Krisian gaude: maila askotara hedatu da krisia gainera. Egia da gaur egungo errealitate politiko-ekonomiko-soziala irakurtzeko, teorien defizitean mugitzen ari garela. Horrek ez du erran nahi, ezta hurrik eman ere, kapitalismoa erabat garailea denik, edo eta sistema kapitalistari irtenbideak topatzea ezinezkoa denik.

XIX. mendetik datorkigun kapitalismoa, eta berorren kontra gauzatu nahi zuen sozialismoa, erabateko krisian daude. Kasurako, kapitalismoan sinesten dutenek hamaika konponezinezko arazo daukate: inflazioa, langabezia, kanpo-zorra, ekologi mailako triskantzak eta abar luzetxoak.

Eguneroko bizitzan krisiak ikaragarritzko eragina dauka. Ekonomi mailan, zertxobait aipatzearen, European eta Espainiar Estatuan hartzen ari diren neurri ekonomikoak direla bide, gorriak ikusiko ditugu laster. Izan ere, monetarismoa nagusi den uneon, interes-tasa, diruaren prezioa garai den

mementuan, inbertsioak murrizturik daude guztiz. Alde batetik, kontsumorako dirurik ez dagoelako: alokairuak murriztu nahi direlako, eta norberaren kontsumorako dirua kredituan hartzeko, bankuek jartzen duten interesa garaia delako. Bertzetik, industrian, enpresa tipietan batez ere, inbertitzeko kredituak eskatzeko dirua garestiegia izatetik at, badago egon ziurgabetasun handi bat ekonomiaren egonkortasunari buruz. Horrek guztiorrek stagnazioa dakar, alegia, produkzio-maila jaitea. Horren ondorio zuzena zera da, lantegiak hustea, langabezia. Are okerrago, merkatu-mekanismo erabat libre izan dadila aldarrikatzen den une honetan, lehia ekonomikoa gogorra da oso. Urteetan zehar nahikoa babesturik egon diren enpresak, Espainiar Estatukoak kasu, nola bilaka litezke konpetitibo bertze enpresa erraldoi batzuen aurrean? Mirari litzateke hori gertatzea.

Egia da kapitalaren gestioileek ezin dutela kapitalismo-mota hau ongi kudeatzeko ohizko erremintarik erabili: ohizko politika fiskala. Kontua zera da, kapitalismo-mota berri honek **krisia beharrezko daukala**, mozkinak, irabaziak eskuratu ahal izateko. Krisia, bera, ez da agertu ustegabe bezala, "ziklo" baten ondorio legez; aitzitik, une honetan, prozesu kapitalistaren substantzia bera da. Honek hauxe erran nahi du: kapitalak krisia bera erabiltzen duela alokairuak murrizteko, eta krisi-egoeraz baliatzen dela bere politika orokorra aurrera eramateko.

Kapitalaren ustiakuntza eta klase-borroka ez dira desagertu, bertze baldintza desberdin batzuen bitartez azaldu baizik. Beraz, bizi gareneko gizartea analizatzeko eta bera aldatzeko kategoria berriak asmatu beharra daukagu. **ustiakuntza** desberdinak aztertzeo kategoriak, alegia. Kategoría berri horietan, esplotazioak (ekonomiko, politiko, kultural, nazional eta sozialak) paper zentrala eduki behar du. Paper zentralak ez du erran nahi maoista amorratuek aipatu ohi zuten (oraingoz ere?) kontrerran nagusiaren atzetik gabiltzanik. Azken horretaz aritzea zaborretan mugitzea bertzerik ez baita.

Gai izanzen ote gara kapitalaren kontrako proiektu berriak eraikitzeo? Geroak du erranen.

Produkzio sozial berria

Razonaltasuna ez da razonalkeria. Arrazoa erabiltzea ez da esoterismoan mugitzea. Indibidualtasuna ez da indibidualkeria eta subjektibokeria ez da subjektibotasuna. Sasizientzia ez da zientzia, zaborra dena –kasu, psikoanalisisa, Lacan eta enparauak-zientziazat aurkeztea baizik. Hori argi dago; ez ordea irrazionalismoa ekintza-gidari bezala erabili nahi dutenendako.

Kasurako, esoterista maozaleek erabiltzen duten hitzontzikeria alde batera lagata, lastoa eta alea bereizirik, harrigarri bada ere, "militantismo berria" Mao-ren liburu tipo gorrian ikusten dute: "Liburu gorri tipian dagoen gehiena, gure artean erabat

baliogarri diren maxima militanteak dira, eta berorien orde ez da ezer hoberik aurkeztu (sic). Liburu gorri tipiak, daukan gauzatxo estalinista batzuk (sic) kenduz gero, militante progresista eta iraultzailearen manuala izaten segitzen du". Hona hemen, beraz, "militantismoa" nola ulertu behar den (!!!).

Irrazionalkeri eta lelokeri mota guztien kontra, behin eta berriz, arrazoa erabili behar dela aldarrikatzen dugu. Arazoa da, baina, errealtate berriaren eraikitze-eredu berriak ezin direla arrazoizko paradigma zaharretan sartu. Bertze kategoria berriak asmatu beharra dago, ezelako irrazionalkerian erori gabe, inolako rasionalkerian jauzi barik.

Arrazoiaren oinarritu behar ditugu geure proiektuak. Arrazoiak baliatu behar dugu geure proiektuak plazaratzeko; eta praktikak, ez bertze ezerk, frogatuko du proiektu horien baliogarritasuna. Hauxe da ABCa nonnahi, eta ez irrazionalismoaz baliatzea, are gutiago esoterismozko subjektibokeria etengabe aipatzea. Ikuspegi edo fokapen zientifikoa erabili behar dugu gizarte arloan ere, hala indibidualtasunak nola gizataldeak aztertze, eta berorien proiektuak oinarritzeko.

Errate baterako, jasaten ari garen bizibaldintzek amorrua sortarazi diguten arren, orain ekonomi mota berri bati aurre egin behar diogu. Sindikatu eta alderdi politikoak horretaz konturatu ez arren, edo eta nahiz eta horretaz konturatu gura ez, ekonomi mota berri baten aurrean

gaude. Orain kapitala **sozialdu** egin da. Gizarte osoa dago kapitalaren menpe. Eta ekonomia berri horrek lanarekiko jarrera berriak ere ekarri ditu.

Adierazgarri dira oso, kasu, Ekialdeko European gertaturiko zenbait fenomeno: alde batetik, **lanaren beraren kontrako joera** hedatua, hau da, joan direneko baldintzen ukatze hutsa eta etengabea. Beraz, "sozialismoan bakoitzari bere lanaren arabera" delako leloaren aurkako portaera argia. Bertze aldetik, gizarte zibilaren garrantzia: boterearekiko indarra oinarri sozialetan, mugimendu sozialetan, finkatu nahi izatea, eta ez Estatuaren aparatuetan.

Arrazoa ere erabili behar dugu autodeterminazio-eskubidea praktikan gauzatu behar dela eskatzen dugunean. Eta praktika horretan, gauzatze horretan demokrazia ezin da murriztu emantzipazio politiko soil-soilera; askatasun nazionalak eta politikoak askatasun soziala, kulturala eta ekonomikoa eskatzen dituzte. Ez dago demokraziarik lanaren eta menpekotasun-arazoak konpontzen ez diren bitartean. **Demokrazia absolutuak** gizabanakoen eta herrien eskubideak onetsi behar lituzkeen moduan, lanaren esklabutzatik askapena ere suposatu beharko luke. Produktioan, kasu, kooperazioaren erakundetze librea bultzatu beharra dago, ez egun ezagutzen dugun ekonomia kudeatzeko, baizik eta gizartea bera bertze era batera eraikitze, zeren gaur egungo lan produktiboa soziala baita oso, hots, gizartea bera kapitalaren menpe dagoen uneon, lanindar berrien

eginkizuna gizartea bera bertze era batera antolatzea baita.

Ekonomia berrian, subjektu sozial berria, gehien batez, komunikazioaren bidez bere kooperazio sozialaren produzitzailea da. Horixe da, bada, zentzu zabalean, ekonomiaren gaur egungo sektore estrategiko bakarra, alegia, **komunikazioa eta kooperazio sozialaren produkzioa**.

Zentzu hertsian, eta arlo ekonomikoari dagokionez, kontua ez datza enpresak eta lan sozialaren erakundetzeak nagusigo berri baten esku jartzean, "gestio" on eta efikaza burutu dezaten. Aitzitik, gizabanakoei, taldeei, eta herriei egokitu dakiekeen produkzioaren kudeatze demokratikoa da arazoa. Kudeatze berriaren bidez, erabat irekirik dagoen etorkizunaz jabe ahal izateko, subjektu kolektiboak zenbait ezaugarri eduki beharko lituzke (badauzka, jadanik), hala nola: elkartasuna, kapitalaren esparru-etatik deskokatze potentzialtasuna, anizkorra eta anizkuna bere adierazpenetan, (hau da, erreferentzia kontzeptualekiko balioaskotasuna eta bere burua agertzeko era eta modu askotakoa), zentralismoaren kontrakoa, korporatismoaren aurkakoa, justizian oinarrituriko bakezalea eta, zentzu sakonean, lurraldeari atxikia.

Kapitalerako den lan alienatzailearen kontra, lanindar sozial berria erabat abstraktua da eta gizartean zehar oso hedatua. Agian bera izan daiteke produkzio sozial berria, hau da, kooperazio sozial berria martxan jar dezakeena, alegia, bertze gizarte-mota baten sortzailea, askatasun-gunez

beterikoa izanen dena, zentraldurik barik erabat deserdiraturik egonen dena. Prozesu eraikitzaile horretan, esoterismo guztiak soberan daude.

Ustiakuntza eta komunikazioa

Zer izan liteke langile sozialduarendako, ohizko langilearendako "alokairuak" zeukan antzeko funtzioa? Hau da, ba ote dago produzituriko balioaren sinboloa, eta, era berean, langile sozialdua jasaten duen desjabetza adieraz ditzakeen ezer?

Kapitalak erabat zeharkatu du gizartea, aparatu politiko eta teknikoen bidez, gizartean produktibitate-maila garaigoa sortzeko dauden lanerako kooperazioaren edozein modu auresateko, eratzeko, edo eta subsumitzeko asmoz. Are gehiago, balioa birberegantzeko, koordinatzeko eta agintzeko boterea konkistatu, bereganatu nahi du. Kapitalismo helduaren esplotazioa ekoizleen komunitatearen ustiakuntza da. Zuzenki komunitateari, kolektiboari afektatzen dio, artezki lanerako kooperazioa desjabetzen duelako.

Komunikazioa da komunitatearen esentzia, beraren era modernoan, abstratuan. Lan soziala eraikitzen deneko lehengaia da komunikazioa, eta, horregatik, maiz desjabetua, kontrolatua, eta beti oztopatua izaten da.

Kapitalak, beraz, komunikazioaz jabetu behar du; komunitatea ustiratu beharra dauka, ezaguera kudeatzeko ahalmen autonomoa garaitu behar du,

ezaguera hori bitartekari bihurtuz. Horixe da, beraz, gaur egun kapitalismo helduan ustiakuntza-modu berria.

Ikus dezagun nola gertatzen den komunikazioaren desjabetza komunitatean. Komunikazioak askatasuna, eta maila intelektual eta etiko desberdinen arteko aukera ematen ditu; bai eta lan sozial hila aktibatzekeko posibletasun nabaria ere. Hori dela eta, kapitalak harreman horiek kontrolatu nahi ditu, era desberdinetara: (1) komunikazioak daukan berezko edukin eraikitzailea hustu nahi du, eta, ondorioz informazio soil bilakatzea, hots, errealitatearen interpretazio eskematikoa, bizitzarik gabekoa eta beti tronpagarria; eta (2) langile sozialduen egite komunikatiboaren aurrean, kapitalismo garatuak subjektibitate desberdinak produzitu nahi ditu, egite komunikatiboak daukan berezkotasuna onartu ezezik, jokabiderako modu informatiko soila bultzatuz.

Desjabetza bera, hortaz, prozesu produktibo bilakatu da. Langile sozialduarendako, kapitalak komunikazioa agertzen deneko baldintza sozialak eratu nahi ditu. Bertze aldetik, langile sozialduaren lanaren balioa (eta, beraz, beraren potentzia) langileek errepresentatzen duten lan-kooperazioko edukinei dagokie.

Beraz, baldin eta produkzioa sozial bada, eta, baldin eta prozesu produktiboaren orokortasun sozialarekiko erlazioan diruaren balioa neurtzen bada, diruak balioaren naturak berak azaltzen duen neurri

abstratuaren errepresentazio ona dela ematen du. Ikuspuntu honetatik zera erran daiteke, monetarismoaren intuizio garrantzitsuena zuzen dela. Dirua indibidual barik kolektibo, konkretu gabe abstraktu, definitu gabe indefinitu bilakatu da.

Ekonomia sozialdu garatua, paradoxa are handiago bilaka daiteke: baldintza hauetan logiko izanen litzateke **batezbesteko alokairu sozialeko sistema bat**, hiritar guztiei, enplegatu izan edo ez, berdinkideki banatze –moralki justuago ezezik, ekonomikoki, kontaduria aldetik, zehatz izanen den sistema, prezeski.

Bertze aldetik, ekonomi mota horretan, harreman sozialen indarkeria maximoan baldin badago, terroreak izugarri izan beharko du. Maila materialean, terroreranzko boterearen tentsio hori energia nuklearraren ideologiak eta praktikak eratzen dute. Terrore nuklearrak, kapitalismo helduan eta ohizko sozialismo "errealean", kapital finko sozial legez aurkeztu du bere burua. Kapitala energia nuklearrari lotuta dago: Erabili egin du eta kapital tinko sozial bezala inposatu nahi du.

Kapital tinko sozialak bere burua kapital nuklear bezala aurkeztu duenean, beraren birproduktzioa ez da legitimo, ez eta onargarri ere. Kapitala deuseztatu egin behar da. Energia nuklearraren, eta berorren instalazioen eta mehatxuaren izaera publikoari, Estatu kapitalistan zein ohizko Estatu sozialistetan sekretu maximoa dagokio. Estatu nuklearra sekretuan oinarrituriko estatu-mota da.

Dominazioa sekretua bera da. Ustiakuntzak komunikazioa eta beronek sortzen dituen kooperazio-efektuak mistifikatu ezezik, bera debekatu ere egiten du eta beraren substantzia deuseztu. Komunikazioa soil-soilik esisti daiteke kapitalaren teleologiaren menpeko den arabera, eta selektiboki erabil daitekeen heinean.

Mekanismo kapitalistek sekretua ere produzitzen dute. Izan ere, gizarte kapitalistak garden eta demokratiko direla aldarrikatzen duten bitartean, sekretua, era babestu batez, gero eta hedatuago da.

Kapitalismo helduan, kapitalak erabiltzen duen ustiakuntza-motek komunikazioak daukan potentzialtasuna, hots, langile sozialduaren produkzio-modua agertzen deneko sormenerako indarra, deuseztatu nahi dute. Beraz, langile sozialduen eginkizuna zera da, komunikazio propiorako bideak urratzea eta komunikazioaren gune propioak kudeatzea.

Ohizko politikaz haratago

Kapitalak **informatizazio** sozialari ekiten dio; horrek erran nahi du maila sozialera elementu produktibo guztiak eramanarazi zituela. Konputagailuak eta informatika direla bide, ohizko produzioa erabat sozialdu da, gizartea bera fabrika handi bilakaturik. Honela lan intelektuala zentral, oinarrizko bihurtu da, balioa eratzean eta gizarte berria eraikitzean.

Egoera honetan sortzen da langile sozialdua. Langilego berria konturatzeko ez dela behar gehiagorik inolako ugazabarik –pribatuak zein burokratikoak, hots, kapitalismoan edo eta sozialismoan egon direnak–, zeren langilego sozialdua bera baita, autonomoki, beren lanaren ugazaba eta bere lanaren produktuen jabea.

1980ko hamarkada, informatika eta konputagailugintza dela medio, kapitalak maila sozialera elementu produktibo guztiak eraman ditu. 1970eko hamarkadan joera bezala agertu zena gauzatu da erabat. Egoera berri honetan langile sozialdua, agente kolektibo bezala, nonnahi ari da borroketan (produkzioan, birprodukzioan eta zirkulazioan). Baina oraingoz erresistentzi-borroketan aritzen da.

Antolakuntza mailan arazoa hau da: nola birproduzitu ahal izanen dituzte erresistentzi borroka horiek beren buruak, baldintza materialetatik independente den subjektu berria eraikitzeko?

Borroka berrietan agente nagusiaren alde subjektiboa aintzakotzat hartzeak agente horren errepresentazioa, berorren esperientzia konkretuaren adierazpen etiko eta kulturalak, arduratzea suposatzen du.

Askapen-ideologiak klase-eraketaren analisisian sartzeko, subjektu kolektiboaren autonomia eta erlazio kapitalistetatik independente den subjektutzat osatzen eta indartzen duten arabera.

Langile sozialdua, esentzialki, **lanindar intelektual** da, zeren berak **kooperazioa** eta **komunikazioa** intelektuala produzitzen baititu. Beraz, Marx-endako alokairua zena, gurendako, Negri-ri jarraituz, komunikazioa da.

XXI. mendearen arazoa, beraz, benetako demokraziaren subjektu bilakatu den lan intelektual mota batena da. Hemen Spinoza-rengandik Marx-enganaino doan ildoak biribil daiteke. Spinoza-rendako, maitasun intelektuala baldin baten **multitudo**-a gauzatzen zuena, gurendako, komunikazioaren eta kooperazioaren produzitzea da demokrazia absolutua gauzatuko lukeena, eta berori lortzeko, lanindar intelektuala, hots, langile sozialdua da agente nagusia.

Langile sozialduaren eratze kapitalista edo/eta sozialistari uko egitea politika mailan ere nabarmena da.

Gatazka singularren aniztasunetik datorrenak produkzio sozialaren gaineko kudeatze politikoan ere badauka bere eragina.

Kanpotik egindako politika-mota bat, hau da, alderdiaren zeregina kontzientzia sorreraztea delako leloarekin bukatu egin da. Politika, hemendik aurrera, **barneko zeregin** bat bezala hartu beharra dago.

Ohizko alderdiek kategoria zaharkituetan finkaturik daudenak, antzinako produkzio-era bati loturik daudenak, "masa"tik bereizturik daudenak, desio, gurari edo nahi berrien suspertzera erotzat hartu dute, katastrofe

bezala bizi baitute egoera berri hau. Paranoiko bihurtu dira: Alde batetik korporatibismoa atxiki dute, borroka berriak bideratu nahiz; bertzetik, Estatuaz baliatu dira antzinako "elite"en legitimatizazioa berreskuratzeko.

1968ko mugimenduak eta harrez geroztik sorturiko singulartasunezko mugimendu kolektiboek ohizko eskema ezkertiarak birrindu dituzte. Proletalgo berria agertu dela erran daiteke. Spinoza-rekin batera, desio berrien gauzatzea, amaigabeko berregituratzea, denbora konstitutiboak eta abar aldarrikatu eta gauzatu egin behar direla erran behar da.

Leku guztietan "gutiengoak" agertu dira. Kapitalismoan eta ohizko sozialismoan gutiengo horien gatazka berriak bereganatzeko ahaleginek porrot egin dute. Krisi politikoak sozialean, gizartean dauzka erroak.

Lehen erran bezala, autobalorazio material eta kultural berriak agertu dira 1968ez geroztik. **Politika berria** zerean datza, osagarri singularren ugaritasunaren elkartasun berrian, askatasunezko kokaguneak konkistatzean, eta berauek kudeatzean. Politika berria, hortaz, demokrazi mota berria da, sormen berriak eta partehartze berriak bultzatzen dituena, alegia.

Subjektibotasun berriak

1968ez geroz, subjektibotasun kolektibo berriak agertu dira maila sozialean. Beroriek daramatzaten antagonismoak ez dira errekupegarri ohizko politikan.

Desio eta nahi berriko singularitasun-prozesuak praktika kolektiboetan loturik daude, subjektua, beraz, kolektibo bezala agertzen da, nahiz eta kolektiboa bera "gutiengoa" azaldu.

Kolektibismo itsuari, ohizko "sozialismo errealarari" uko egiteak, eta lan alienagarriari ezetza emateak produktibotasun sozial berria suposatzen dute.

Produkzioak, **singularitasunen produktioa** erran nahi du. Politika berriak, hortaz, ez dauka zerikusirik ezagutu dugun kolektibismo motarekin, subjektibotasunik handiena gauzatzearekin baizik. Singularitasun horien agerpena anizkuntasun edo ugaritasuna da, mugikortasun espazio-denboralean eta sortzailean. Oinarri honetan finka daiteke, koka daiteke, soil-soilik, lanaren berreraikitzea edo berreratzea.

Lan-mota berriak aginte hierarkikoa ez du onesten, produktibitatearen eta bere esistentziaren artean egon daitekeen edozein bitartekaritza baztertzen duelarik.

Boterea askapen-erreminta legez hartzen du subjektibotasun berriak, hau da, autobalorazio bezala eta singularitateen autoprodukzio lez.

Kolektibo berriak gizartean zehar agertu dira: estudianteak, gazteak, emakumeak, ekologistak, intsumisoak, kultur mugimenduak, nazio-mugimendu solidarioak, "bertze" langilego-mota bat, ... Alegia, gatazka sozialaren ohizko kontzepzioak

birpentsatu nahi dituzten gizarte-mugimenduak. Askapen-produkzioa helburu nagusi bilakatu da. Zentzu honetan, demokrazia kontzeptua bera birpentsatu beharra dago.

Demokrazia absolutuaren kontzeptuak subjektu produktibo berria eta berak produzitzen duen antolaketa soziala berdintzen ditu. Botere eraikitzailea da prozesu hori.

Lanindar intelektual eta kooperatiboaren botere eraikitzailea inertziaren ordezkari berrikuntza eskatzen du, desioen adierazpena etengabeki birplanteatzen delarik.

Espazioa, denbora, eta kooperaziorako arauak subjektuek, beren **multitudoan**, beren inteligentziaren bidez, osagarri dituzten berdintasun-harremanak eta osagarritasun-erlazioak direla bide, eraiki ditzakete.

Subjektu berrien analisiak, bere intentsitate ontologiko sakonean, posibletasun guztien posibletasunaren aurrean jartzen gaitu. Askatasunaren eraikitzea ez da bitartekaritza izanen, baizik eta subjektuak berak osatzen dituen lan bizi eta berritzailea aintzakotzat hartzen duten subjektuen ekintza kolektiboen sistema eta sarea.

Hau ez da utopia, baizik eta balioa erantsiz, desioak sortuz eta kooperazioaren bidez, bizitzaren bilbea eraikiz, gizartea birproduzitzen duten gizaki guztien posibletasuna. Demokrazia absoluta, hortaz, botere eraikitzailearen **erabil-balioa** da. Hau da, subjektu kooperatzaile eta burutsu baten emaitza, eta, aldi berean,

produzitzeko potentzia, mundua produzitzeko eta birproduzitzeko posibletasuna daukan subjektu sozial bakarrarena, hain zuzen ere.

Subjektu berria demokrazia antolatu baten posibletasuna da, botere eraikitzaile legez. Zentzu honetan, demokraziak bere subjektu egokia aurkitu du: ez demokrazia ordezkatzaileria, ez eta demokrazia zuzena ere, demokrazia absolutua baizik: azkenik bere adierazpen absolutua topatu duen subjektu batengan oinarritua.

Orain, egia bilatzea, egia produzitzea bilakatu da. Emaitza zuzena eta produktiboa dauzkan eraikuntza kooperatibo eta intelektuala, beraz. Hau da, herioaren kontrako bizitzaren aldeko borrokan, gizakiaren natura bera erabat eraldatzen duen gizakiaren eta gizateriaren etengabeko eraldaketa.

Kapitalerako den lan alienatzailearen kontra, lanindar sozial berria erabat abstraktua eta gizartean zehar hedatua. Bera da produkzio sozial berria, hau da, **kooperazio sozial berria** martxan jar dezakeena, alegia, bertze gizarte-mota baten sortzailea, askatasun-gunez beterikoa izan dena, eta zentraldurik barik erabat deserdiraturik egonen dena.

Bostgarren mundua

Felix Guattari zena 1980ko hamarkadan bostgarren munduaz mintzatu zen. Kontzeptu horren barnean mugimendu nazionalitarioak

(abertzaleak dei ditzakegunak euskara garbian) sartu nahi zituen Guattarik.

Baina mugimendu abertzaleekin batera bertze zenbait gizarte-mugimenduen eginkizunak aipatu zituen pentsalari frantsesak. Bertze kontzeptu batez baliatuz, langile sozialduaz alegia, Toni Negri-k 1970eko hamarkadaren bigarren partetik azpimarratzen dituen eginkizun beretsuak.

Parentesi artean erran behar da Guattari-k, ohizko Lacanzalea izanik, izugarrizko lan interesgarria egin duela psikoanalisi, Freud, Lacan eta enparau guzti horien hitzontzikeria, bai eta horrelako esoterismoak erabiliz sortzen den mikrofaxismoak salatuz. Ikus, batez ere, bibliografian aipaturiko Deleuze eta Guattari-ren lanak.

Guattari-rendako, mugimendu abertzaleak Hirugarren Munduan ezezik, Lehen Munduan eta Bigarren Munduan ere agertu dira: Palestinarrak, Armeniarrak, Euskaldunak, Irlandarrak, Korsoak, Lituaniarrak, Amerindioak, Kurduak,... Menperatu diren herri horiek Laugarren Munduan, hots, miseria gorrian bizi dira (miseria fisikoa zein kulturala eta beti politikoa). Guattari-k zioenez, definitugabeko herrien nebulosa horrek gero eta garrantzia handiagoa izan du nazioarteko harremanetan. Are gehiago, berarendako, Bostgarren Mundu Nazionalitario horren eginkizuna ez da izanen gehiagorik denfentsiborik, baizik eta gaur egungo balore kulturaleri, praktika sozialei eta gizarte-modeloei berrikuntza erabakiorra ekarriko diela. Hortaz,

lurraldekotasun nazionalitarioen bereganatzea izan beharko du eginkizun garrantzitsuenetariakoak, hots, homogenokeria kapitalista eta estataletik at, eta gose eta hilketatik kanpo dagoen bizitzaren aldeko borroka.

Guattari-rendako, arazo nazionalitarioa ez datza arrazan, etniam, hizkuntzan edo eta kulturaren. Herriak antolaketa subjektibo konplexuak izanik, osagai heterogenoak eta are desakortak dauzkate. Beraz, azpimarratu nahi zuena zera da, singularitasun-prozesuaren sorrera bera, askatasunaren, desioen eta sormenaren espazioak (lurraldeak) eraiki nahi izatea. Bostgarren Munduko borroka horiek ez dira ohizko askapen nazionalaren aldekoak, zeinak Nazio-Estatua lortzearen aldekoak baitira.

Mundu-Kapitalismo Integratuak lortu duena zera izan da, kapital sozialduaren bidez, medio informatikoen bitartez, gizabanako bakoitzari sistemak nahi (eta behar) dituen lanerako disziplina, balore-hierarkia, eta baztertze soziala "ematea". Hortaz, zenbait giza talderi bizitzen irauteko lurralde esistentzialak beharrezko zaizkien heinean, kapitalismo-mota berri horren aurka zenbait gizarte-mugimendu azaldu dira: inmigrazio-mugimenduetatik hasi, mugimendu ekologista desberdinetatik pasa eta intsumisoengana, justizian oinarrituriko benetako bakezaleengana eta antimilitaristarengana iritsiz; bai eta antinuklear eta emakumezkoen mugimenduak ere, hau da, gatazka sozialean ohizko eskemak eta

politikokeriak alboratuz, bertze politika-mota berri bat praktikan ezarri nahi duten gizarte-mugimendu berriak.

Hori honela izanik, argi dago ezinezko dela "amankomuneko" programa soil batean, edo eta erakunde soil batean mugimendu horiek guztiok daukaten aberastasuna sartzea. Izan ere, talde desberdin horien helburuak, metodoak, sentiberatasunak eta logikak berak ere, desberdin dira oso. Berorien pluraltasuna, aniztasuna eta kontrastatutasuna nabariak izan arren, bakoitzak, bere erara, kapitalak eta bere Estatuak murrizten eta ezabatu nahi duen bilbe sozial baten birrosatzearen ahaleaginean parte hartzen du. Bilbe sozial berri horren antolaketa da, hain zuzen ere, gauzatzeko politika-mota berria, esoterismo, leninismo eta maosismo-mota guztietatik at egonen dena. Ondorioz erran daiteke beharturik gaudela geure erreminta kontzeptualak berrasmatzera, errealtate horren aberastasunaz jabetzeko. Horretarako, esoterismo eta zaborkeria guztiak soberan daude.

Hortaz, eginkizun teoriko-praktiko baten aurrean gaudela erran daiteke, non ekintzek, ekintzengatik berengatik ez garamatzate inora edo eta, are okerrago, hondamendira eraman gaitzakete, baldin eta ekintza horien gida teorikoaren garrantziaz eta sakontasunaz jabetzen ez bagara.

Agian, egun eta hemen, erreminta kontzeptual berrien beharra gero eta beharrezkoago da, batzuk ohizko marxismo-leninismoan ezkututzen

diren bitartean, eta bertze batzuk esoterismo maoistan erortzen direnean.

Guattari-rekin diogun guk ere, ezen borroka nazionalitarioek orain arte errekontziliaezinezko izan diren bi perspektiba bateratu beharko dutela: Alde batetik osagai bakoitzaren autonomia gordez eta kanpoko aparailu politikoaren eskusartzerik gabe, askapen-borroka molekular desberdinen baldintzak sortzea; eta bertzetik, botere-zentrugune hegemonikorik bilakatu barik, errepresioaren erasoan kontra babesturik egonen borrokarako informazio eta erabakitze-aparailuak ezartzea.

Borroka abertzale molekular horiek okertze nazionalista-estatalistatik aldentzen diren neurrian, kapitalista ez diren mekanismo sozialak bultzatzen dituzten heinean, Metropolietako proletalgo berriekin eta Hirugarren Munduko zapalduekin bateratzen diren arabera, gauden krisi sakonetik atera gaitzakete.

Guattari-k zioenez, XXI. mendea mugimendu nazionalitarioen mendea izanen da. Hala biz!

Bibliografia

DELEUZE, G., eta GUATTARI, F.; *Rhizome (introduction)*. Paris: Minuit, 1976.

DELEUZE, G., eta GUATTARI, F.; *Anti-Oedipus*. New York: Viking, 1977.

DELEUZE, G., eta GUATTARI, F.; *Thousand Plateaus*. Minneapolis: University of Minnesota Press, 1987.

GUATTARI, F.; *Molecular Revolution*, New York: Penguin, 1984.

GUATTARI, F.; *Cartographies Schizoanalytiques*, Paris: Galilée, 1989a.

GUATTARI, F.; *Les Trois Ecologies*, Paris: Galilée, 1989b.